



**Arartekoaren 2024R-806-24 Ebazpena, 2024ko ekainaren 10ekoa. Honen bidez, Hezkuntza Sailari gomendatzen dio berrikusi dezala irakasleen hautaketa-prozesu baten emaitza eta baloratu dezala hautagai batek prozesuan parte hartu duen espezialitate bereko irakasle-esperientzia gisa egiaztatutako lan egindako denbora.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek (...) Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren<sup>1</sup> bidez deitutako unibertsitateaz kanpoko irakasleak hautatzeko prozesuan izan zuen parte-hartzearen harira. Kexagileak *"Hezkuntza-orientazioaren"* espezialitatean parte hartu zuen.

Kexagilea ez zegoen ados Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak hautaketa-prozesu horretan egindako zenbaketarekin; izan ere, kexagileak egiaztatu zuen Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxe publikoetan irakasle-esperientzia izan zuela hain zuzen ere *"Hezkuntza-orientazioaren"* espezialitatean 2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra, eta baieztatu zuenaren arabera, zerbitzu horiek beste irakaskuntza-espezialitate batean emandakotzat bezala baloratu zizkioten, eta horrenbestez, puntuazio txikiagoarekin.

Kexagileak adierazi zuenez, bere egunean, Eusko Jaurlaritzan Nafarroako Gobernuak igorritako dokumentu ofiziala aurkeztu zuen (zerbitzu-orria), eta bertan bete zituen lanpostuetako (horien artean zegoen aurreko paragrafoan aipatutakoa) bere zerbitzu guztiak eta ezaugarriak zehaztu zituen.

Hala ere, antza dokumentu horrek jasotzen zituen datuak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren berezko informazio-sistemara lekualdatzeko orduan gertatutako akats baten ondorioz, urte horri zegozkion zerbitzuak *"Euskara eta Literatura"* espezialitatean emandakotzat jo ziren eta ez, Nafarroako Gobernuaren zerbitzu-orrian adierazten zen bezala, *"Hezkuntza-orientazioa"* espezialitatean.

Kexarekin batera, pertsona horrek Arartekoan ondoren Eusko Jaurlaritzak emandako zerbitzu-orriaren kopia bat entregatu zuen eta Nafarroan egindako lana jasotzen zen baita ere eta ikusten zen, egiaz, Nafarroako Foru Erkidegoan

---

<sup>1</sup> Agindua, 2022ko irailaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musikako eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen, Maisu-maistren eta desagertzear dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egiten duena.



*“Hezkuntza-orientazioa”* espezialitatea eman zuen ikasturtea oker sartuta zegoela eta *“Euskara eta Literatura”* agertzen zela.

Aurrekoa dela-eta esperientzia oker baloratu zen eta dirudenez, deitutako plaza bat ez zioten adjudikatu; izan ere, kexaren azalpenei jarraikiz, zerbitzu horiek benetan eman zituen moduan baloratu izan balira, pertsona horren puntuazioa handiagoa izango litzateke eta nahikoa izango litzateke plaza bat adjudikatzeko.

Kexagileak egindako baieztapenen eta kexarekin batera aurkeztu zuen dokumentazioaren arabera, pertsona horrek 2022ko EPEaren merezimenduen alegazio- eta aurkezpen-orriaren eredu ofiziala bete zuen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandakoa, eta bertan sartu zuen prozesuan aintzat hartzeko merezimendu gisa Nafarroan eskuratu zuen irakasle-esperientzia, eta horretarako arestian aipaturiko Nafarroako Gobernuaren zerbitzu-orria aurkeztu zuen.

2023ko maiatzaren 19an, ikusirik hautaketa-prozesuan aurkeztu zen espezialitateetan bere merezimenduak nola baloratu zituzten, erreklamazioak jarri zituen hautagaien merezimenduen behin-behineko puntuazio-zerrendaren aurka. Zehazki, *“Hezkuntza-orientazioa”* espezialitatearen erreklamazioan aurreko paragrafoetan azaldutakoa komentatzen zuen eta eskatu zuen Nafarroan emandako zerbitzuen puntuazio okerra zuzentzeko, deialdiaren oinarriekin bat etorritz.

Geroago, 2023ko ekainaren 13an, erreklamazio berria jarri zuen aukeratutako hautagaien behin-behineko zerrendaren aurka. Bertan, berriz ere aipatu zuen emandako zerbitzuak oker kalifikatuta zeudela eta esan zuen oso garrantzitsua zela, prozesuan plaza eskuratu ahal izatea horren menpe baitzegoen.

Azkenik, 2023ko uztailaren 4an hirugarren idazki bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Elektronikoa Nagusian berriro ere erreklamatzeko bere puntuazioa zuzendu beharra zegoela, eta kexa hau jarri zuen egunera arte ez zen horrelakorik gertatu eta ez zuen inolako berariazko erantzunik jaso.

2. Nafarroako Foru Erkidegoan egiaztatutako esperientziaz gain, kexagileak aurretik Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoetan lan egin zuen, *“Hezkuntza-orientazioa”* espezialitatean (zehazki 2 hilabete merezimenduak zenbatzeko epea bukatu zenean) eta beste irakaskuntza-espezialitate batzuetan baita ere; esperientzia hori ere prozesuan zenbatu zen.
3. Kexa izapidetzerako onartu eta gero, Ararteko erakundeak laguntza eskatu zion Hezkuntza Sailari inguruabar horiei buruzko informazioa eskuratzeko eta jakiteko





zergatik ez zuten zenbatu prozesuan parte hartu zuen espezialitate bereborean lan egindako urtea eta jakiteko baita ere ea hezkuntza-administrazio hori prest egongo litzatekeen esleitutako puntuazioa berrikusteko.

#### 4. Erantzun-txostenean, Hezkuntza Sailak honako gogoeta hauek azaldu zituen:

- 2023ko maiatzaren 19an pertsona horrek epearen barne aurkeztu zuen behin-behineko merezimenduen aurkako erreklamazio bat.
- Behin betiko puntuazioak 2023ko ekainaren 8an argitaratu ziren, eta 2023ko ekainaren 12an erreklamazioak ezesteko arrazoiak argitaratu ziren, baina ez ziren pertsonalki jakinarazi.
- Kexagilearen kasuan ez zen argitaratu zergatik ezetsi zen “Hezkuntza-orientazioa” espezialitatearen erreklamazioa. Parte hartu zuen beste bi espezialitateen inguruan aurkeztu zituen erreklamazioak ezesteko arrazoia argitaratu zen, eta esan zitzaion esperientziari buruzko merezimendua zuzen zenbatuta zegoela.
- Geroago, hautatutakoen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioa aurkeztu zuen eta ez zitzaion erantzun indibidualizaturik eman kasu horretan ere, baizik eta hautatuen behin betiko zerrenda argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2023ko ekainaren 29an.
- 2023ko uztailaren 4an idazkia aurkeztu zuen Erregistro Elektronikoko Orokorrean eta espedienteari agiriak erantsi zizkion. Dokumentazio horren artean zegoen berriz ere 2023ko maiatzaren 19an aurkeztu zuen erreklamazioa, baina ez zuen errekurtsio-idazkia kalifikatu eta ez zuen azaldu errekurritutako egintza ezta inolako arrazoirik ere.
- 2023ko uztailaren 5ean kexagileari komunikazio baten bidez erantzun zitzaion, esanez egonkortzeko hautaketa-prozesuaren emaitzekin ados ez bazegoen, berraztertze-errekurtsioa aurkezteko aukera zuela 2023ko ekainaren 30etik abuztuaren 1era, eta ez zuen horrelakorik egin.
- *“Gaiaren funtsari helduz, ikusten da 2 hilabete eman zaizkiola 1.1 atalean, espezialitateko irakasle-esperientziari buruzkoan. Hala ere, ikusten da interesdunak Nafarroako Gobernuaren zerbitzu-orria aurkeztu zuela. Orri horretan, hezkuntza-orientazioko espezialitatean urtebeteko lana agertzen da.”<sup>2</sup>*

---

<sup>2</sup> Apartatu honetan hitzez hitz transkribatu da Hezkuntza Sailak bidalitako txostenaren edukia



## Gogoetak

1. Espediente honetan aztertzen ari garen hautaketa-prozesua aurretik aipatu den Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bitartez deitu zen, eta aldi berean, prozesu hori arautu behar duten oinarri orokorrak onetsi zituen.

### 1.2 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz,

*“Hautaketa-prozesua merezimendu-lehiaketa sistemaren bidez garatuko da, hau da, parte-hartzaileen merezimenduak baloratuko dira (agindu honen I. eranskinean daude jasota). Prozesuaren kalifikazioa, beraz, aipatutako I. eranskinean aurreikusitako baremoaren arabera emandako puntuen baturak zehaztuko du.”*

Aginduaren I. eranskinean merezimenduen baremoa jakinarazi zen, eta kexa honen hizpide izan denari dagokionez, honela dago idatzita:

<b>MEREZIMENDUAK</b>	<b>PUNTUAK</b>	<b>EGIAZTAGIRIAK</b>
<b>I.- ALDEZ AURREKO IRAKASLE-ESPERIENTZIA</b>	<b>Gehienez 7,000 puntu</b>	
<i>1.1.- Ikastetxe publikoetan, izangaiak eskatutako kidegoaren espezialitatean irakaskuntzan izandako esperientzia-urte bakoitzeko.  *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0583 puntu gehituko da.</i>	0,700	<i>Zerbitzu-orria, dagokion hezkuntza-administrazioko organo eskudunak emana, honako hauek jasotzen dituena: lanpostuaz jabetzeko eta uzteko data, kidegoa eta espezialitatea. Halakorik ezean, adierazitako datuak jasotzen dituzten izendapenak, bai eta kargu-uztearen agiria ere.</i>
<i>1.2.- Ikastetxe publikoetan, izangaiak eskatutako kidego bereko beste espezialitate batzuetan irakaskuntzan izandako esperientzia-urte bakoitzeko.  *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0291 puntu gehituko da.</i>	0,350	<i>** Ofizioz zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko eta autonomia-erkidego honetatik kanpoko ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).</i>

2. Espediente honetan aztertutako funtsezko kontuari dagokionez eta kontuan hartuta kexan aurkeztutako dokumentazioa eta Hezkuntza Sailak Arartekoari azken honek bidalitako laguntza-eskaerari erantzunez bidalitako txostena, ondorioztatzen da kexagilearen merezimenduak baloratu zirenean ez zirela jarraitu deialdiaren oinarriko zehaztapenak.





Egiaz, ukaezina da Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak bazuela Nafarroako Gobernuak emandako zerbitzu-orria 2019/2020 ikasturte akademikoan emandako espezialitateari buruzko informazio zuzenarekin, eta horixe izan zen kexagileak hautaketa-prozesuan alegazioak eta merezimenduak aurkezteko epean entregatu zuen agiria eta, egiaz, oinarriek agiri hori eskatzen zuten inguruabar horiek justifikatzeko.

Modu horretan, irakaskuntza-esperientziako urte hori merezimenduen baremoaren I.1 apartatuan baloratu izan beharko litzateke; izan ere, hautagaia *“Hezkuntza-orientazioa”* espezialitateara aurkeztu zen eta espezialitate horretan izendatua izan zen.

Hala eta guztiz ere, esperientzia hori Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren langileen erregistroan oker sartu zenez, zerbitzu-urtea baremoaren I.2 apartatuan baloratu zen, legokiokkeenaren puntuazioaren erdiarekin.

Hala, azkenean, baremoaren I.1 apartatuan bakarrik pertsona horrek 2022-2023 ikasturtean Eusko Jaurlaritzaren irakasle gisa egiaztatu zituen bi hilabete zenbatu ziren, eta egiaz, urtebete eta bi hilabete zenbatu behar izan ziren.

Ondorioz, Hezkuntza Sailak kexagileari emandako puntuazioa berrikusteko agindua ezarri zen, hala, puntuazioan *“Hezkuntza-orientazioa”* espezialitateari dagokion irakasle-esperientzia baloratu dadin, deialdiaren merezimenduen baremoari jarraikiz.

Egiaz, kaltetuak sortu ez duen egoera bat da, une oro deialdiaren oinarriak betez jardun baitu, bai dokumentazioa aurkeztu zuenean bai eta ondoren ikusiko den moduan, jarduketa okerraren aurka erreklamazioa jarri zuenean ere. Horrenbestez, ez ditu jasan behar bere esku-hartzearen kanpoko akats baten ondorioak, gainera akats hori hezkuntza-administrazioak berak aitortu duenean.

3. Deialdiaren oinarrietan aurreikusita dago erreklamazioak prozesuaren bi une hauetan aurkeztuko direla: lehiaketan eskuratutako puntuazioen behin-behineko zerrenda argitaratzen denean (6.4 oinarria) eta hautatutakoen behin-behineko zerrendak argitaratzen direnean (7.3 oinarria).

Kexagileak erreklamazioak jarri zituen epearen barnean.

Lehenengo erreklamazioari ez zitzaion inolako erantzunik eman, puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratu eta egun gutxi geroago jendaurrean erakutsitako





zerrendan jaso ez zelako (bertan adierazten zen ea erreklamazioak onetsi ziren edo ez, eta hala bazegokion, ezestearen arrazoia). Hezkuntza Sailak ez zuen xehetasunik eman zerrendan jaso ez izanari buruz.

Bigarrena ere ez zen inolaz ere erantzun, dirudienez kasu honetan ez baita erreklamazioen zerrendarik egiten eta ez da esaten onetsi ziren edo ez.

Horren ondorioz, kexagileak ezin izan zuen jakin (eta bere eskubidea zen) zehazki zergatik justifikatu zen hezkuntza-administrazioaren jarduketa; eta hori are garrantzitsuagoa da, kontuan hartuta aurreko apartatuetan azaldutakoaren arabera bere nahia erreklamazioaren hasierako unetik onartua izan ahal izan zela eta hala izan behar zuela gainera.

4. Deialdiaren oinarriek xedatzen dute baita ere interesdunek berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dutela baita ere hautatutakoen behin betiko zerrenda argitaratzen duen Hezkuntza sailburuaren aginduaren aurka (7.4 oinarria).

Kexagileak idazki bat eta hainbat agiri aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Ofizialean errekurtsoa jartzeko epearen barnean, eta berriz ere gertatutakoa azaldu zuen eta esan zuen EPEan egindako bere merezimenduen balorazioa okerra zela, ez baitzuten kontuan hartu *“Hezkuntza-orientazioa”* espezialitatean lan egindako urtea.

Idazki horri ere ez zitzaion berriazko eta arrazoitutako erantzunik eman alderdi materialen inguruan, egitatezko eta zuzenbideko oinarriekin, zeintzuk Hezkuntza Sailak oinarritzat hartu zituen merezimenduak modu horretan baloratzeko.

Alderantziz, hezkuntza-administrazioak esan bezala, idazki hori aurkeztearen ondorioz pertsona horri jakinarazpen bat bidali zitzaion esateko 2023ko abuztuaren 1era arte berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zuela egonkortzeko hautaketa-prozesuko emaitzekin ados ez bazegoen.

Hezkuntza Sailaren arabera, jakinarazpen hori bidali zioten kexagileak ez zuelako errekurtso idazkia kalifikatu eta errekurritutako egintza ez zuelako azaldu edo arrazoitu, baina egindako lehen erreklamazioa aurkeztu zuen.

Idazki kalifikatu berririk jaso ez zuenez (berraztertze errekurtsoarena), Hezkuntza Sailak ez zion eskaerari inolako izapiderik ezarri.

Egia dena da, Arartekoari aurkeztutako dokumentazioaren arabera, eskaera horrek ez zuela hitzez hitz esaten berraztertze errekurtsoa zenik ezta





hautatutako behin betiko zerrendak argitaratu zituenaren aurka zuzenduta zegoenik ere.

Hala ere, ezin da ezta era albo batera utzi Hezkuntza Sailak beharrezko elementu guztiak zituela ulertzeko egiaz eskaera horrekin hautaketa-prozesua erabakitzen zuen egintza errekurritzen ari zela.

Egiaz, eskaera errekurtsoak jartzeko epean aurkeztu zen, irakasleen hautaketa-prozesua aipatzen zuen, sortutako egoera azaltzen zuen eta merezimenduen zenbaketa aldatzeko asmoa eta horretarako arrazoiak azaltzen zituen eskaera zuen atxikita.

Hain da horrela, ezen Hezkuntza Sailaren jakinarazpenean ondorioztatu zela pertsona horren asmoa irakasleen ez-ohiko hautaketa-prozesuan hautatutako behin betiko zerrenda errekurritzea zela. Hala ere, eskaera modu horretan izapidetu beharrean, bakarrik esan zitzaion idazki berri bat aurkezteko, eta jada laugarrena izango litzateke eduki eta asmo berberarekin.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 115.artikulua<sup>3</sup> administrazio-errekurtsoak jartzeari buruzkoa da eta hauxe dio:

*“2. Errekurtso-jartzaileak errekurtsoari okerreko kalifikazioa jartzea, edo kalifikaziorik ez jartzea, ez da eragozpen izango errekurtsoa izapidetzeko, garbi badago behintzat zein den bere benetako izaera.”*

Aurreko guztiarengatik, azken finean, erakunde honek uste du Hezkuntza Sailak idazkia izapidetu behar izan zuela eduki materialari erreparatuz, eta berariazko eta behar adina arrazoitutako tresna baten bidez ebatzi behar izan zuela.

5. Oso ezaguna da Arartekoak zer uste duen administrazio-prozedura baten interesa duten pertsonak eskaerak, erreklamazioak edo errekurtsoak jartzen dituztenean administrazio publikoaren administrazio-isiltasunari buruz, eta horregatik, ez ditugu hemen errepikatuko iritzi hori oinarritzen duten argudioak. Adibide gisa, [2024ko apirilaren 19ko Ebazpena](#) aipatuko dugu; horren bidez, Arartekoak Hezkuntza Sailari gomendatu zion berariaz eta modu arrazoituan eta gehienez ere hamar eguneko epean ebatz zezala irakasleen hautaketa-prozedura bati buruzko errekurtsoa.

---

<sup>3</sup> 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Hezkuntza Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera

## GOMENDIOA

Berrikus dezala Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez deitutako irakasleen ezohiko egonkortze-prozesuaren emaitza eta baloratu dezala kexagileak 2019-2020 ikasturtean egiaztatutako zerbitzu-denbora baremoaren I. 1 apartatuan, prozesuan parte hartu duen *“Hezkuntza-orientazioa”* espezialitatearen irakaskuntza-esperientzia berebean.